



HAUR HEZKUNTZA

6. modulua: Eskola Gaitasunak eta Curriculum II

MODULUKO IRAKAS-GIDA

2023-2024

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 1. Sarrera | 2 |
| 2. Testuingurua | 3 |
| 4. DALaren antolamendua | 5 |
| 5. DALaren garapena | 6 |
| 6. DALaren ebaluazioa | 9 |
| 7. Lan honen bidez landuko diren gaitasunak | 11 |
| 8. DALa ez egiteko salbuespenak | 12 |
| 9. Eranskinak | 13 |

1. Sarrera

Haur Hezkuntzako curriculumak finkatzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza mota hau ezartzen duen maiatzaren 30eko 75/2023 Dekretuak (EHAA 109zk., 2023ko ekainaren 9koa) bere 6. artikuluan xedatzen duenaren arabera, Haur Hezkuntzan "Era berean, haurrek ingurune naturalean lehenengo esplorazioak eta hurbilketak egitea bultzatuko da".

"Harmonia hazten", "Ingurunea ezagutzea eta esploratzea", "komunikazioa eta errealitatearen adierazpena" eremuen bidez, funtzesko kompetentziak landuko dira:

- a) Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
- b) Kompetentzia eleaniztuna.
- c) Matematikarako kompetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako kompetentzia.
- d) Kompetentzia digitala.
- e) Kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.
- f) Herritartasunerako kompetentzia.
- g) Ekintzailtza-kompetentzia.
- h) Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia.

Aldi berean, Dekretuaren 2. eremuaren hasieran, adierazten da "Eremu honekin inguruneke osagai fisiko eta naturalak ezagutzea, behatzea eta esploratzea bultzatu nahi da. Ingurunea haurarentzat emozio eta harridura iturri izan dadila eta horren pixkanakako ezagutzarekin, ingurumena zaintzea eta babestea errespetatu eta balioetsi dezan saiatu. Geure buruaren ezagutza eta gurekiko errespetua naturaren ezagutza eta errespetuarekin lotuta dago. Pertsonak natura ere bagaren heinean, haurra zaindu eta errespetatzen badugu, ingurumena eta natura zaindu eta errespetatzeko ereduak izango ditu" (75/2023 Dekretua: 27 orr.).

Haur Hezkuntzako Gradu 6. moduluan arreta berezia eskainiko diegu ikasleen prestakuntza integralerako oinarrizkoak diren hezkuntza baliabideei. Hain zuzen ere, "gelaz kanpoko irteerei".

Gelaz kanpoko irteeren gainean darabilgunean hurrengoari egiten diogu erreferentzia: ohiko gelatik kanpo egiten den edozein ekintza aurretik planifikatua izan dena. Irteera hauek egokiak dira, ikasteko aukera zirrargarriak eskaintzen baitituzte, irudimena eta adierazpen pertsonala

suspertzen lagunduz. Gainera, ikasleak denbora eta espazio zabalagoetan kokatzen dituzte eta haien ondare kulturala, teknikoa, artistikoa, eta abarri buruz ikasi dezaten laguntzen dute (Molina Ruiz, 2007¹).

Ikerketa honen metodologiari dagokionez, ikerketan oinarritutako ikaskuntza inplementatuko da. "El aprendizaje basado en la investigación consiste en ofrecer a los estudiantes la posibilidad de realizar o participaren procesos de investigación, aplicando la metodología para comprobar o la veracidad de una hipótesis, para dar respuesta a un problema o para responder a una pregunta planteada, acompañándolos y supervisando todo el proceso" (Servicio de Innovación Educativa de la UPM, 2020:4)². Ikerketa honen galdera hurrengoa izango da: Nola txerta daiteke gelatik kanpo irteeretan 4. Garapen Iraunkorrerako Helburua (GIH)? Horretaz gain, zerrenda honetatik zein GIH aukeratuko zenukete zuen jardueretan jorrazteko? Hona GIH zerrenda: (1) pobrezia amaiera, (2) zero gosea, (3) osasuna eta ongizatea, (4) kalitatezko hezkuntza, (5) genero berdintasuna, (6) ur garbia eta saneamendua, (7) energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea, (8) lan txukuna eta hazkunde ekonomikoa, (9) ura, industria, berrikuntza eta azpiegitura, (10) desberdintasunak murriztea, (11) hiri eta komunitate jasangarriak, (12) ekoizpen eta kontsumo arduratsuak, (13) klimaren aldeko ekintza, (14) urpeko bizitza, (15) lurreko ekosistemen bizitza, (16) bakea, justizia eta erakunde sendoak, (17) helburuak lortzeko aliantzak eta (17+1) Euskararen eta euskal kulturaren garapena eta gaikuntza eleaniztuna².

2. Testuingurua

6. modulua, "Eskola Gaitasunak eta Curriculum II", Haur Hezkuntzako Graduko 3. mailako bigarren lauhilekoan egiten da.

¹ Molina Ruiz, E. (2007). Escuela y educación fuera del aula: contribución de los escenarios exteriores al aprendizaje. *Revista Iberoamericana De Educación*, 44(4), 1-12. <https://doi.org/10.35362/rie4442222>
Servicio de Innovación Educativa de la UPM. (2020). *Aprendizaje basado en la investigación*. Universidad Politécnica de Madrid. https://innovacioneducativa.upm.es/guias_pdi

² UNESCO (2017). Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako Hezkuntza. Ikaskuntza-Helburuak. Nazio Batuen Erakundea.: <https://www.unetxea.org/dokumentuak/ikaskuntza-helburuak.pdf>

Moduluko Diziplinarteko Lanak (DAL) 3 kreditu balio ditu eta irakasgai hauekin dago lotuta:

- Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika (6 kr.)
- Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan (6 kr.)
- Musika Adierazpenaren Garapena II (6 kr.)
- Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza (5+4= 9 kr.)
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika (9 kr.)

3. Garapen Iraunkorrerako Helburuak

Sarritan geure buruari galdetzen diogu nolako hezkuntza behar dugun XXI. mendean. Ezin dugu ahaztu gizarteak aldakorrak direla eta ikaskuntzak ere bat egin behar duela Mundu mailako etengabeko bilakaerarekin. Lan honetan, mugak zeharkatu behar dira eta irakasgaien oinarriko kompetentziak eskuratzeaz gain, garapen jasangarriaren alderdi sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak ere lantzea nahitaezkoa izango da, hots, "Hezkuntza ikuspegi humanista dago oinarrian, hezkuntza guztion ondasun nagusia –ongia– den aldetik" (UNESCO, 2016, 3. or.)¹.

Hezkuntza da aldaketarako atea zabaltzen duen eragiletako bat, eta baita berebizikoa justizia soziala eta kultura-aniztasuna lortzeko ere; gainera, laguntzen digu ulertzen nazioarteko elkartasuna guztion erantzukizuna dela. Beraz, diziplinartekotasunetik eta begirada askotarikoak erdigunean, 2015ean Nazio Batuen Batzar Nagusiak Gizartea aldatzeko Iraunkorrerako 2030 Agenda kontuan hartuta, hezkuntzaren inguruko hausnarketa kritikoa ere egitea eskatzen da. 2030 Agendan Garapen Jasangarrirako Helburuak jasotzen dira, eta, ahaldunduko dituzten ezaguerak, gaitasunak eta jarrerak sustatzen diren bitartean, haien xederik nagusia da munduan guztiontzat bizimodu iraunkor eta bidezkoa ahalbidetzea.

¹ UNESCO (2016). *Hezkuntza berraztertzea. Mundu osoko ongia lortzeko bidea?* UNESCO.
<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000244209>

4. DALaren antolamendua

DALaren antolamenduak honako arau hauei jarraituko die:

a) Gida honetako 2. puntuaren agertzen diren 3 irakasgai edo gehiagotan matrikulatuta dauden ikasle guztiek egin beharko dute DALa (ikus 7. ataleko salbuespenak).

b) Lana egiteko ikastaldeak 5-6 ikasle izango dira. Adostasuna ez bada lortzen, alfabetikoki eratu dira lauhilekoko 3. astean. Talde bakoitzari tutore bat esleitu zaio; tutoreak DALarekin lotutako irakasgairen bateko irakaslea izan beharko du. Oro har, lana egin bitartean 3 tutoretza-saio egingo dira eta beste saio bat lana amaitutakoan, lanaren ebaluazioari buruzko gaiak lantzeko.

c) Ikasleek 75 lanordu beharko dituzte DALa egiteko (horietako 30 ordu presentzialak); beraz, 3 kredituko balioa du eta 3 fasetan egingo da (ikus 1. taula):

Lehenengo fasean (3. astean, aste magistrala) ikasleek 20 ordu presentzial erabiliko dituzte (4 ordu irakasgai bakoitzeko) lanaren aurkezpena entzuteko eta lanean hasteko. Ordu horiek eskatutako lana aurrera eramateko erabiliko dira. Horrez gainera, irakasgai bakoitzetik lanari egin dakioken ekarpenari buruzko iruzkinak eskainiko dituzte irakasleek. Aste horren amaieran, lanaren 1. eranskina (behin betikoa) emango zaio tutoreari.

Bigarren fasea otsailean gauzatuko da. Aste horiek DALa egiteko erabiliko dira, bertaratu gabeko orduetan, eta tutoreekin derrigorrezko bilerak egingo dira, ikasleek DALari buruz izan ditzaketan zalantzak argitzeko (ikus 1. taula).

Hirugarren fasean, talde bakoitzak egindako lana aurkeztu beharko du ikasgelan (apirilaren 8tik 12ra, 26. astea) ikastordu presentzialetan. Aurkezpenak egiteko egutegia eta ordutegia irakasleekin adostuko da eta derrigorrezkoa da lantalde osoa bertaratzea. Ondoren, azken tutoretza saioan (tutore bakoitzak bere taldearekin adostuko du) lanaren azken ebaluazioa egingo da.

1. taula. DALaren antolamenduaren laburpena

| FASEAK | ORDUAK | ASTEAK | ENTREGAGAIK |
|----------|-------------------------------|---|--|
| 1. FASEA | 20 P | 18. astea (Otsailak 5-11) | 24/02/05: taldekideak eta taldeen izenak 24/02/05-06: DALaren eta irakasgaien aurkezpenak 24/02/08-09: tutorearekin 1. tutoretza 24/02/11: 1. eranskina tutoreari bidali |
| 2. FASEA | 5 EP | 19. astea (Otsailak 12-18) | Gelaren diagnostikoa: 24/02/18: 2. Eranskina tutoreari bidali |
| | 5 EP | 20. astea (Otsailak 19-25) | Gelaren beharren identifikazioa: 23/02/25: 3. Eranskina tutoreari bidali |
| 3. FASEA | 25 EP 2P | 21. astea (Ots. 26-Mar. 3) | 2. tutoretza Kanpo irteeraren diseinua: 4. eranskina |
| | | 22. astea (Martxoak 4-10) | 23/03/10: 4. Eranskina tutoreari bidali |
| | 23. astea (Martxoak 11-17) | 2. tutoretza Bideo aurkezpena prestatu | |
| | 10 EP 2 P | 24. astea (Martxoak 18-24) | 23/03/24: bideoaren linka tutoreari bidali |
| 4. FASEA | 6 P | 26. astea (Apirilak 8-12) | Aurkezpena: Bideoa aurkeztu gelaren aurrean |
| | | 27. astea (Apirilak 15-19) | 3. tutoretza: ebaluazioa |

EP: Ez presentzialak / P: Presentzialak

5. DALaren garapena

Modulu honetan egin beharreko lanaren izenburua **“Haur Hezkuntzako gelako kanpoko irteerak”** da. Lan honetan “Nola txerta daiteke gelatik kanpo irteeretan 4. Garapen Iraunkorrerako Helburua (GIH)?” galdera erantzuteko, berrikuspen bibliografiko bat egineta gero eskola bat aukeratu behar da eta bertan HHko gela batean egiten diren irteerak aztertu behar dira. Gero irteera bat prestatu behar da, zeinak gutxienez GIH bat eta modulu honi dagozkion irakasgai guztietako edukiak lantzeko aukera ematen duen.

Hirueledun lerroan, Idatzizko lana eta aurkezpena ikasle talde bakoitzak bere tutorearekin adostutako hizkuntzan egin behar ditu. Euskarazko lerroan, aldiz, biak euskaraz.

A. Idatzizko entregagaiak:

1. **Marko teorikoa eta aztertuko den eskolaren datuak** (1.eranskina). Talde bakoitzak aurkeztuko du hurrengo asteetan garatuko duen HHkokanpoko irteerei buruzko marko teorikoa eta horretarako erabiliko duen bibliografia. Atal honetan modulu honi dagozkion irakasgai guztieireferentzia egin behar zaie. Marko teorikoa oinarritzen den ideia bakoitza testuan bertan modu egokian aipatua (APA 7) izan behar da, baita amaierako erreferentzien zerrendan ere.

Halaber, aztertuko den gela adierazi behar da.

2. **Gelaren diagnostikoa** (2. eranskina).

Talde bakoitzak aztertu duen gela eta ikastaldearen deskribapena aurkeztu behar du (ikasle kopurua, ezaugarriak, behar bereziak, aniztasuna...). Horretaz gain, gela horretan taldeak ikasturte horretan programatuta dituen irteeren azterketa egin behar du, aspektu hauek kontuan hartuta: nora, zertarako (helburuak), zein arlo eta gaitasuna lantzen diren (curriculumarekin lotura adieraziz), ea GIHak lantzen diren eta zeintzuk, ze bisita mota (gidatua, ez gidatua), giza baliabideak (PT, irakasle kopurua, laguntzailea...), logistika (garraioa, baimenak...) eta abar.

Informazioa bilatzeko metodologia azaldu behar da; hau da, erabilitako tresnak deskribatu eta ebidentziak sartu behar dira (adib.: galdetegiak, elkarrizketaren transkripzioak...).

3. **Beharren identifikazioa** (3. eranskina).

Gelaren diagnosian jasotako irteeren informaziotik abiatuta, alderdi ezberdinetan identifikatutako gabeziak zerrendatu beharko dira.

Hausnarketarako galderen proposamena:

- Programatutako irteerek curriculumarekin lotura dute?
- Diziplinartekotasuna lantzen da? Nola?
- GIHak lantzen al dira? Zeintzuk?
- Zein da irteeren lanketa?
 - Aldez-aurretiko lanketa egiten da gelan?
 - Ikasleen parte-hartzea/zereginak bisita dirauen bitartean.
 - Ondorengo lanketa egiten da gelan?

- Ikastaldearen ezaugarrietara moldatzen da?

4. Irteeraren diseinua (4. eranskina)

Talde bakoitzak diziplinartekotasuna eta GIH bi lantzea helburuduen irteeraren diseinua egin behar du:

- Nora joango diren (deskribatu, informazioa bildu eta irteeraren egokitasuna justifikatu): zergatik aukeratu den leku hori, nolakoa den, non dagoen, zer egin daitekeen han, zein den egun/ordutegi egokiena umeekin joateko, nola heltzen den, ea bisita gidatuak dauden, zein material dagoen umeekin lantzeko... eta abar.
- Giza-baliabideak eta logistika.
- Zertara (balio pedagogikoa: helburuak, gaitasunak, curriculumarekin lotura, alderdi metodologikoak,...).
- Jardueren proposamena: 6 jarduera diseinatu beharko dira, joan baino lehen, irteeran bertan eta irteeraren ondoren egiteko. Gelan egingo diren jardueretan, irteeran bertan landu ez diren, baina moduluan sartzen diren beste ikasgaien/arloen lanketa bermatu behar da. Gutxienez jarduera bat (atzerriko hizkuntza lantzen duenatarikoa) ingelesez azaldu behar da. Ezinbestekoa da jardueren artean koherentzia egotea.

B. Aurkezpena

- **Bideoaren prestakuntza:** Demagun klaustro baten aurrean zaudetela eta zuen irteeraren proposamena plazaratu behar duzuela. Bideo horretan eranskinetan azaldutako informazio laburtua islatu beharko da. Horrez gain, irteeraren kokagunean egingo diren jarduerak bertan grabatuko dira. Bideoa 12-15 minutukoa izango da.
Ikasleek beraien baliabideak erabiliz osatuko dute azken lana. Mugikorrarekin, argazki kamerarekin edo bideokamerarekin grabatuko dituzte irudiak eta ezagutzen dituzten edizio sistemak erabili ahal izango dituzte azken lana renderizatzeko. Azken formatua ahalik eta unibertsalena izatea hobesten da (mp4, avi...) eta ikus-entzunezkoen zabalkunderako sortutako sareko baliabidetara igoko dira (youtube, vimeo...). Aukerakoa izango da pribatutasun ezarpenetan publikoa (kontuz, baimena eman behar dute ikastetxean) edo pribatua (esteka duenak soilik ikusteko ezarpena) izan daiteke; baina azken entregan

ziurtatu behar da irakasleek ikusteko aukera izango dutela.

Bideoan eranskinetan eskatutako hobekuntzak islatu behar dira.

- **Aurkezpena:** Apirilaren 2. astean (apirilaren 8-12ra), talde bakoitzak prestatutako bideoari sarreratxoa egingo dio (2 minututan gehienez) eta jarriko du beste taldeetako ikaskideen aurrean (tutoreaz gain beste irakasleren bat ere egon daiteke saio honetan).

C. Ebaluazioa

Taldeak, apirila bukatu baino lehen, tutoretza bat izango du bere tutorearekin, lanari buruzko feedback-a jasotzeko.

Aurkeztutako lanek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Aipatzen diren erreferentzia bibliografikoak akademikoak izango dira eta APA7ren jarraibideen arabera adierazita.
- Lotura argia izan beharko da lanaren atal teorikoaren, irteeraren eta azalpenen artean.
- Justifikatu behar da nola edo zein irakas-estrategien bidez landuko diren irteerarekin lotutako helburuak eta edukiak eta nola bideratuko den ikaskuntza-prozesua.
- Irteera eta jarduerak hautatzeko irizpideak justifikatu behar dira.

5. DALaren ebaluazioa

DALa diziplina arteko lana da eta ikasle guztiek derrigorrez bete behar dute. Lanaren ebaluazioa jarraitua izango da eta honako hauek hartuko dira oinarritzat:

- Idatzizko entregagaiak, adostutako datetan entregatuko direnak.
- Egindako lanaren bideoa.
- Koebaluazioa.

Tutoreak ikasgelan egindakoak baloratuko ditu, portzentaje hauen arabera: Idatzizko entregagaiak (%65) (1. eranskina %15; 2. eranskina %15; 3. eranskina %15; 4. eranskina %20); Bideoa (%35).

Irakasgaireren bat huts egin baina ohiko deialdian DALa gainditzen duten ikasleei ez-ohiko deialdira arte gordeko zaie DALeko emaitza.

DALaren ebaluazio jarraiari uko egiten dioten ikasleak

Ikasleak ezin badu ebaluazio-jarraian parte hartu, DALarekin lotutako galdera/froga egin beharko du moduluko irakasgai bakoitzaren azterketan. Kasu honetan ere, DAL-arekin lotutako azken galdera/froga honek ikasgaiaren azken kalifikazioaren %10 balioko du.

GARRANTZITSUA: DALaren nota ez da gordetzen urte batetik bestera. Beraz, nahiz eta aurreko urtean lana eginda eta gaindituta izan, ikasleak, gauden ikasturtean gutxienez 3. mailako modulu honetako hiru ikasgaitan matrikulatuta badago, **berriz egin beharko du DALa.**

6. Lan honen bidez landuko diren gaitasunak

| | |
|--|--|
| <p>Soinuaren eta musikaren aukerak balioestea jarduerak diseinatzerakoan, eta aldi berean, mugitzen garen espazio ezberdinetan inguratzen gaituzten soinuez jabetzea.</p> <p>Ikasleen adinaren arabera musika-baliabide desberdinak erabiltzea eta hautatzea: haur-kantak, prosodia, gorputz-perkusioa, mugimenduak eta koreografiak, soinu-materialak eta objektuak (kotidiafonoak, soinu-jostailuak, musika-tresnak...), etab.</p> | <p>Musika</p> |
| <p>Atzerriko hizkuntzen aldeko jarrerak sustatzea.</p> | <p>Hizk. Didak. eta Atz. Hizk.</p> |
| <p>Matematika ezagutza soziokultural gisa ulertzea.</p> <p>Zenbakizko adierazpenak eta espazioaren, geometriaren etagarapen logikoaren kontzeptuak garatzeko estrategia eta baliabide didaktikoak ezagutzea</p> | <p>Matematika</p> |
| <p>Haurrek literaturaz eta idatzizko hizkuntzaz goza dezatela sustatzea.</p> <p>Literatura eta idatzizko hizkuntza baliabideak erabiltzea alderdiludikoa, adierazlea eta sortzailea nabarmentzeko</p> | <p>Hizk. eta Lit. Didak.</p> |
| <p>Ingurunearekiko eta naturako fenomenoekiko jarrera positiboak sustatzea (errespetua, interesa, jakin-mina, etab.).</p> <p>Natura inguruneko elementuak erabiltzea/identifikatzea.</p> | <p>Z. Esp.</p> |
| <p>Ikasgelan egindakoari buruzko taldeko hausnarketa egitea, irakasleen lana eta etorkizunean izan dezaketen jarduerak profesionala berritzeko eta hobetzeko.</p> <p>Irteerak diziplinarteko irakaskuntzarako baliabide gisa eskaintzen dituen aukerez ohartzea</p> <p>Haurren lana antolatzea eta ebaluatzea bideratutako jarduerak (irteerak) denen artean planifikatzea.</p> <p>Hizkuntza ondo eta egoki erabiltzea.</p> <p>Metodologia akademikoa ondo eta egoki erabiltzea kontuan hartutalana testuinguru akademikoan egiten dela.</p> | <p>Zeharkakoa</p> |

7. DALa ez egiteko salbuespenak

1. Graduako ikasleek DALa egin beharko dute modulu honetako 3 irakasgaitan (gutxienez) matrikulatuta badaude. Bestela, ez dute halakorik egin beharko.
2. Ikasleak DALa egitetik salbuetsita dauden kasuan, irakasgaiaren kalifikazioa 10etik egingo da, DALari dagokion ehunekoa aplikatu gabe.
3. Irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe izateagatik aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek DALa behin bakarrik egin beharko dute (irakasgai gehien dituzten modulukoa). Bi moduluetan egin beharreko irakasgaikopurua berdina bada, goragoko mailako moduluari dagokion DALa egin beharko dute.

8. Eranskinak

1. Eranskina

| |
|--|
| Marko teorikoa |
| Adituek argitaratutako informazioarekin marko teorikoa osatu. Orrialde kopurua: 4-6 |
| Bibliografia (akademikoak): Irakasgai guztiekin lotutako aipu eta erreferentzia bibliografikoak erabili behar dira. |
| Aztertuko den eskola |
| Eskola: Maila: |

1. Eranskina

GELAREN DIAGNOSIA

Maila:

Ikasle kopurua:

Taldearen ezaugarriak (aniztasuna, behar bereziak...):

Erabilitako metodologia azaldu eta tresnak eta ebidentziak atxiki atzealdean eranskin moduan (adib.: galdetegiak, elkarrizketaren transkripzioak...).

Programatuta dauzkaten kanpo irteerak:

Zein arlo lantzen diren, zein/nolako helburuak, GIHak, bisita gidatua/ez gidatuak, giza baliabideak (PT, laguntzaileak, gurasoak), logistika (garraiobideak, baimenak...)...

2. Eranskina

| | |
|--|--|
| Beharren identifikazioa | |
| Ikusi 7. orrialdean zehaztuta dagoena. | |

3. Eranskina

| Kanpo irteeraren diseinua | |
|---|--|
| <p>Kontuan hartu gelaren diagnostikoa (umeen beharrak, premia bereziak...).</p> <p>Nora (deskribatu, informazioa bildu eta irteeraren egokitasuna justifikatu): zergatik aukeratu den leku hori, nolakoa den, non dagoen, zer egin daitekeen han, zein den egun/ordutegi egokiena umeekin joateko, nola heltzen den, ea bisita gidatuak dauden, zein material dagoen umeekin lantzeko... eta abar.</p> <p>Giza baliabideak eta logistika:</p> <p>Zertara-Balio pedagogikoa:</p> <p>Jardueren diseinua (6 jarduera: joan baino lehen, hor bertan, joan ondoren egitekoak):</p> <ul style="list-style-type: none">• Landuko diren gaitasun espezifikoak (curriculumarekin lotura).• Landuko diren arloak.• Landuko diren GIH (2).• Deskribatu zehaztasunez nola egingo den jarduera bakoitza. Ezinbestekoa da jardueren artean koherentzia egotea.• Ebaluazio irizpideak eta tresnak. | |

4. Eranskina: Lan idatziaren ebaluaziorako errubrika

| Ebaluatutako alderdia | Bikain | Ongi | Nahikoa | Gutxiegi |
|--|--|---|---|--|
| Garapen Iraunkorrerako Helburuak | Garapen Iraunkorrerako beharrezkoak diren ezaguera teoriko eta praktikokoak ederki barneratu dira. Irteeretan GIHak garatzeko behar diren trebetasunak, balioak eta gogoetarako pizgarriak sustatu dira. (1) | Oro har, GIHak lortzeko beharrezkoak diren oinarritzko gaitasunak lantzen dira, lanean txertatzerakoan ahuleziaren bat erakutsi arren. (0,7) | Garapen Iraunkorrerako Helburuen garapena onargarria da. Hala ere, ez dira biltzen helburu horien erronkak lortzeko beharrezkoak diren ezagutzak. (0,5) | Garapen Iraunkorrerako Helburuak aipatzen dira, baina horien justifikazioa eskasa da eta, aldi berean, ez daukate lotura handirik proposatutako jarduerekin. Ondorioz, pentsamendu kritikorako gaitasunak huts egiten du (0). |
| Terminologia, ortografia eta gramatika | Maila handiko terminologiaren erabilera eraginkorra, eta zuzentasun osoa ortografian, puntuazioan eta gramatikan, Euskaltzaindiaren arauak errespetatuz. (2) | Terminologiaren erabilera egokia. Oro har, lana zuzen dago, nahiz eta tarteka akatsenbat edo beste egonortografian edota gramatikan. (1,5) | Terminologiaren erabilera onargarria, aberatsagoa izan zitekeen arren. Ortografian eta gramatikan akatsbatzuk, nahiz eta lana, oro har, egoki egon. (1) | Terminologiaren erabilera sarri desegokia da eta akats ugari ortografian eta gramatikan. (0) |
| Ordena, koherentzia eta logika, ideien aurkezpena | Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira, argumentazio koherentez. Aurkibidearen eta epigrafeen erabilera zuzena. Atal teorikoa, irteera, jarduerak eta azalpenak ondo lotuta daude (2) | Ideiak modu sendoan azaltzen dira lan osoan zehar, nahiz eta hobetu daitekeen. Aurkibidearen eta ideien garapenaren artean lotura egokia. Atal teorikoaren, irteera, jarduera eta azalpenen arteko nahiko lotura nabaritzen da (1,5) | Ideiak modu sendoan azaltzen dira lan osoan zehar, nahiz eta hobetu daitekeen. Aurkibidearen eta ideien garapenaren artean lotura egokia. Atal teorikoaren, irteera, jarduera eta azalpenen arteko nahiko lotura nabaritzen da (1,0) | Ideiak modu nahasian azaltzen dira, funtsik gabe eta ordena logiko nahikoa falta da. Lan nahasia eta astuna da jarraitzeko. Aurkibidea ez datorbat ondorengo lanarekin eta akats asko dago. Ez dago loturarik atal teorikoaren, irteera, jarduera eta azalpenen artean (0) |
| Sakontasun zientifikoa | Ikuspegi berria eta sortzailea aurkezten du, arrazoibidean heldutasuna, gaiaren ulermen sakona eta taldekideen arteko eztabaida sakona erakutsiz. Hausnarketa kritikoa eta datu objetibo eta oinarrituta. Sakontasunez azaltzen da nola landuko diren edukiak. Irteera eta jardueren hautaketa eta aurkeztutako ideiak ondo justifikatzen dira (3,5) | Gaiaren ulermen egokia eta sintesi ahalmena, kritikagoa eta sortzaileagoa izan zitekeen arren. Nahiko azaltzen da nola landuko diren edukiak. Esfortzua nabaritzen da. Irteera eta jardueren hautaketa eta ideiak ondo justifikatzeko (2,6) | Gaiaren ulermen onargarria eta oinarritzko erreferentzia batzuetan bermatuta. Ez du kritikarako aparteko ahalmenik erakusten. Oso gutxi azaltzen da nola landuko diren edukiak. Azaletik azaltzen dira Irteera eta jardueren hautaketa eta aurkeztutako ideiak (2,25) | Gaiaren ulermen eskasa, Batere berritzailea ez den ikuspegi bat aurkezten du eta erreferentzia desegokiak. Ez da azaltzen nola landuko diren edukiak. Irteera eta jardueren hautaketa eta aurkeztutako ideiak ez dira justifikatzen (0) |
| Informazio iturrien erabilera | Informazio iturri akademikoaren erabilera bikaina, planteatutako oinarriak sostengatzeko. Aipu eta erreferentzia guztiak ondo txertatzen dira APA arauak errespetatuz. (1,5) | Ikuspegi gehienak informazio iturri akademikoekin sostengatzen dira. Aipu eta erreferentzia gehien-gehienak zuzen txertatzen dira. (0,7) | Ikuspegi batzuk ez dira sostengatzen informazio iturri akademikoekin. Aipu eta erreferentzia gehienak zuzen txertatzen dira. (0,25) | Informazio iturri akademikoak ez dira erabiltzen, edo oso gutxi erabiltzen dira, azaldutako puntuak sostengatzeko. Aipu edo erreferentzietan akats nabarmenak APA arauen arabera. (0) |
| Puntuazioa | 10 | 7 | 5 | 0 |

5. Eranskina: Bideoaren ebaluaziorako errubrika

| Ebaluatutako alderdia | Bikain | Ongi | Nahikoa | Gutxiegi |
|-----------------------------------|---|---|---|--|
| Egitura | <p>Azken eranskinean azaldutako atal guztiak azaltzen dira. Zati bakoitzari eskainitako denbora orekatua da. Informazioa ordenatzeko moduak ulermena errazten du.</p> <p>Bideoak, bere horretan koherentzia handia du, bideoaren atal guztiak lotura dute eta ondorioek (amaierak) lanaren osotasuna barnebiltzen du. (1)</p> | <p>Azken eranskinean azaldutako atalen bat ez da azaltzen, zatiren bati denbora gehiegi edo gutxiegi eskaini zaio, edota Informazioa ordenatzeko modua hobetu zitekeen.</p> <p>Bideoak koherentzia handi samarra du. Halere, atalen arteko loturaren bat hobetu zitekeen, edota ondorioek ez dute barnebiltzen lanaren osotasuna erabat. (0,75)</p> | <p>Azken eranskinean azaldutako atal asko ez dira azaltzen, zatiren bati denbora gehiegi edo gutxiegi eskaini zaio edota informazioa ordenatzeko modua asko hobetu zitekeen.</p> <p>Bideoan aurkeztu diren atalen arteko lotura nahiko ona da. Halaber, atalen batek ez du inolako loturarik, edota akats nabarmenak daude bideoaren koherentziari dagokionean. (0,5)</p> | <p>Azken eranskinean azaldutako atal gehienak ez dira azaltzen, bizpahiru atal bakarrik jasotzen dira bideoan, edota Informazioa ordenatzeko modua zeharo hobetu zitekeen.</p> <p>Bideoak ez du inolako koherentziarik egiturari dagokionean. (0)</p> |
| Argitasuna eta zuzentasuna | <p>Hizkera zuzena, jatorra eta egokia darabil. Jarduerak lehen ikustaldian ulertzeko moduan azaltzen dira (2)</p> | <p>Hizkera nahiko zuzena, jatorra eta egokia darabil. Jarduerak nahiko ulergarriak dira (1,5)</p> | <p>Hizkera ez da oso zuzena, jatorra eta egokia. Jarduerak ez dira oso ulergarriak. (1)</p> | <p>Hizkera ez da zuzena, ezta jatorra eta egokia. Jarduerak ez dira ulergarriak. (0)</p> |
| GIHen egokitasuna | <p>Aukeratutako GIHez ezarritako oinarriaren eragina argia da. (1)</p> | <p>Aukeratutako GIHez ezarritako oinarriaren eragina nahiko argia da (0,5)</p> | <p>Aukeratutako GIHez ezarritako oinarriaren eragina ez da oso argia (0,3)</p> | <p>Aukeratutako GIHez ezarritako oinarriaren eraginik ez dago. (0)</p> |
| Edukiak | <p>Jarduerak egokiak dira hautatuko haurren adinerako eta irakasgai bakoitzarekin duten lotura pisuzkoa da. Koherentzia dago jardueren artean. (2)</p> | <p>Jarduerak nahiko egokiak dira hautatuko haurren adinerako eta irakasgai bakoitzarekin duten lotura dago. Jardueren artean koherentzia nahikoa dago. (1,5)</p> | <p>Jarduerak ez dira oso egokiak hautatuko haurren adinerako ezta irakasgai bakoitzarekiko erlaziorako ere. Jardueren arteko koherentzia ez da nahikoa. (1,2)</p> | <p>Jarduerak ez dira egokiak hautatuko haurren adinerako, ezta irakasgai bakoitzarekiko erlaziorako ere. Ez dago koherentziarik jardueren artean. (0)</p> |
| Sakontasuna | <p>Marko teorikoak eta jarduerak oinarri zientifiko sendoa dute. Aukeraketa bakoitzaren atzean gogoeta eta logika sakona hautematen da. Bibliografia aberatsa da eta zuzen erabiltzen eta aipatzen da. (3)</p> | <p>Marko teorikoak eta jarduerak oinarri zientifiko nahiko ona dute. Aukeraketa bakoitzaren atzean gogoeta eta logika hautematen da, nahiz eta hobetzekoa izan. Bibliografia nahiko aberatsa erabiltzen da eta ondo erabiltzen da, nahiz eta akatsaren bat egin. (2)</p> | <p>Marko teorikoak eta jarduerak oinarri zientifiko txikia daukate. Aukeraketa bakoitzaren atzean gogoeta eta logikaren bat hautematen da. Bibliografia eskasa erabiltzen da eta akats asko egiten dira. (1,5)</p> | <p>(1a) ez dago oinarri zientifikorik marko teorikoan eta jardueretan. Aukeraketa bakoitzaren atzean ez da argi ikusten gogoetarik edo logikarik. Bibliografia eskasa da edo kalitate txarragoa eta, horrez gain, ez da zuzen erabiltzen edo aipatzen. (0)</p> |
| Bideoaren kalitatea | <p>Bideoa benetan erakargarria eta sortzailea da. Ikusentzunezko baliabideen erabilera bikaina da. (1)</p> | <p>Bideoa nahiko erakargarria eta sortzailea da. Ikusentzunezko baliabideen erabilera nahiko ona da. (0,75)</p> | <p>Bideoa ez da oso erakargarria eta sormenaren falta nabaria da. Ikusentzunezko baliabideen erabilera urria da. (0,5)</p> | <p>Bideoa ez da erakargarria eta sormena barik egindakoa. Ez ditu erabiltzen Ikusentzunezko baliabiderik. (0)</p> |
| Puntuazioa | 10 | 7 | 5 | 0 |